

OSKAKO EUSKARA

Hiztegi txikia

Aitor Arana

Aurkibidea

Kokapen mapa...

Hitzaurrea...

Ikurrak eta laburdurak...

Oskako euskara - Euskara batua hiztegia...

Euskara batua - Oskako euskara hiztegia...

((((KOKAPEN MAPA))))

Marra berdez, Oskako erromatartzearen muga VI.-VII. mendeetan.
Puntuzko marra beltzez (Nafarroako Nabaskoze eta Oskako Urdue artean),
euskararen muga Oskan XVI. mende amaieran.
Marra urdinez (Nafarroako Erronkarin), euskararen muga 1863an.
(Ikus azalean koloretako mapa)

Iturria: R. Menéndez Pidal, *Orígenes del español*, 1956 [4. arg.]

Hitzaurrea

1. Oska edo Huesca

Oska Aragoi izeneko autonomia erkidegoko probintzia bat da, mendebaldean Euskal Herria mugakide duena (Nafarroa Garaia). Erromatarren garaian hiriburuak Oska zuen izena eta horixe du euskarazko izen historikoa, gaur egun Huesca hobesten den arren. Oso probintzia menditsua da eta Pirinioetako mendirik garaienak bertan daude (Aneto, Perdido). Nekazaritza jardueran zerealak, ardoa, olio eta lekadunak gailentzen dira, eta abeltzaintzan ardiak. Turismo leku ezaguna da bertako eski estazioei esker. Euskal herritar askok Jaka hiria aukeratzen dute oporretarako eta atsedenerako.

2. Oskako euskararen egoera XIX. mendea bitartean

Oska probintziaren euskalduntasunaz gehien ezagutzen den pasartea, ziur aski, 1349ko udal agindua da. Urte hartan, Oska hiriko azokak arautzeko ordenantzetan, berariaz debekatu zen azoketan euskaraz hitz egitea. Estornes Lasa eta Gartzen Lacasta jaunek aspaldi argitaratua dute garai hartako agindu idatzia: «*Item nuyl corredor non sia usado que faga mercaderia ninguna que conpre ni venda entre ningunas personas, faulando en algaravia ni en abraych ni en bascuenç; e qui lo fara pague por coto xxx sol.*» Lacasta jaunak pasarte ezagunari honako informazio hau gehitu zion (itzulpena gurea da):

Huescako Udaleko agirizaina den Federico Balaguerrekin hizketan ari nintzela, esaldi hori [...] «Ordenantzetan» XIX. mendea arte ohikeriaz errepikatzen zela esan zidan. Pentsatzekoa da «bascuenc» hitz egitea debekatzen bazuten, norbaitek hitz egiten zuelako izango zela.

Gartzen Lacasta, 162. or.

Bestalde, Juan Karlos Lopez-Mugartza jaunak honela dio:

Ikerketaren ondorioz ozen eta gora esan daiteke Anson izan bazirela euskaldunak Behe Erdi Arora arte; ezin dela ulertu hemengo toponimiaren euskaltasuna, ondoan euskal sena zuten ansoarrak egon gabe. XVI. mendeko zenbait agiritan herri-etimologia euskaldunaren itzal handia nabaritzen da, sen hori eskribauarena izan zitekeen, egia da, ez herritar guztiena, baina euskara bazekitela edo euskara ez zitzaizela arrotz egiten behintzat argi dago [...]. Gure kasu zehatzari Belaskoren teoriak hertsiki ezarritz, XVI. mendean Anso hirian eta Zurizako eta Linzako eremuetan euskaldunak bizi izan zirelako ondorioa atera behar dugu.

Lopez-Mugartza, 344-345. or.

Euskarari buruz aurkitu dugun eskualdeko azken berria Oska probintzia ondoko Zaragoza probintziaren iparraldeko Uncastillon aurkitu dugu. Sinbolikoa baino ez dela iruditzen zaigu, baina aipagarria hala ere (itzulpena gurea da):

[Hona] albiste historiko bat ekarri dut, Alfonso Irigoien jaunak jaso zuena eta Javierreko Isidro Escagiës jaunaren testigantza zuzenean oinarritzen dena. Escagiës jauna Historiaren eta Zientzia Moralen eta Politikoen Errege Akademietako katedraduna eta urgazlea da. Lekuko honek dioenez, Zaragoza probintziaren iparrean dagoen Uncastillo herrian —Jakako elizbarrutiaren barruan dagoen hartan— euskaraz otoitz egin da gure mendea arte [XX. mendea arte]. Euskaraz errezatzen ziren Aitagurea, Agur Maria eta Kredoa, eta San Cristobal-go Ama Birjinari abestutako gozoak ere bai «gosua San Kristobalua...». Aipatu dugun lekukoak txikitan ikasi zituen horiek, 1922. eta 1923. urteetan, zeren eta otoitzok neska-mutikoek ere errezatzen baitzituzten hizkuntza horretan. Isidro Escagiësek Alfonso Irigoieni bat-batean buruz esan zion orduan gogoratzen zuen aitagurearen zatia:

«Aita guria seudetan saudena,
santifikat bedi sure isena,
betor guregana sure erreinue,
eman desagesu egunesko ogie egun eta beti,
barka iskigusu guri geren sorrak.»

Gartzen Lacasta, 171-172. or.

Lekukotasun honek ez du inondik inora esan nahi, 1922an Zaragozako Uncastillo herrian euskaraz hitz egiten zenik, baina Oska inguruko zenbait jende bertako euskara galdu eta gero ere hizkuntzarekin lotura historiko-sinbolikoa izaten jarraitu zuela erakusten digu.

3. Oskako euskararen ezaugarri batzuk

Oskako euskarazko lekukotasun idatzi gutxi geratu zaizkigu: toponimia, eta Erdi Aroko antroponimia pixka bat. Eta gaur arte heldu diren ahozko lekukotasun bakanak —hitz solteak— probintziako aragoieran gorderik heldu zaizkigu. Horrek, jakina, hitzak desitxuratu ahal izan ditu, lehenik euskaratik aragoierara igarotzean, eta gero aragoieran bertan, mendeen joanean.

Jatorrizko hiztunik gabe eta testu idatzi luzerik gabe, ezinezkoa da eskualdeko euskararen deskribapen sakona egitea, baina dauzkagun hondarrek zantzu batzuk erakusten dituzte. Oska probintzia Euskal Herriaren ekialdean dagoenez, ez da harrizkoa bertako euskara ekialdeko eta iparraldeko “usainekoa” izatea. Jaso ditugun hitzak aztertuta, laster datozkigu burura zaraitzua (zar.), erronkaria (er.) eta Iparraldeko euskara (ip.): *aintz* (ahuntz; er. *aintz*), *argellatu* (argaldu; er. *argildu*), *ausin* (bisuts; zar. *auso*), *gabar* (lahar; ip. *gapar*), *keleta* (langa; ip. *kereta*), *kukute* (ezkutaketa; ip. *kukutze*), *xarga* (sasi; zar. eta er. *xarga*), *zerren* (sits; ip. *zerren*).

Oskak, beraz, nagusiki ipar-ekialdeko hiztegia erakusten du. Erdialdeko hitzen adibideak ere badauzka: *arte*, *be* (behe)... Eta mendebaldekoak ere bai: *arro* & *arru* (amildegi), *kapar* (kapar, akain), *kurloi* (txolarre), *sain* (gantz).

Bildu ahal izan dugun materialari begira, hitz hasierako *j*, *x* eta *y* letrei dagokienez, tamalez lekukotasun bakarra daukagu: *xarga* (sasi).

A eta *e* bokal protetikoei dagokienez, *e*-dun adibide bakarra azaldu zaigu: *errot*, «errotazar» toponimoan gorderik.

Ikusi ahal izan dugunez, artikulua batzuetan bere aurreko bokalaren palatalizazioa eragiten du, edo bokal horrek artikulua: *ate > atea & atia, arru > arrue...*

Jakina denez, zaraitzua eta erronkaria sinkopa ugariko euskalkiak dira, baina haien ondoko zuberera ez. Oskan bi sinkopa aurkitu ditugu: *buru > bru* eta *orube > orbe*.

Eta tarteka arkaismoren bat edo beste ere agertu da: *iputza* (gipuzkoarra), *Ipuzkua* (Gipuzkoa)...

Aipagarria da *aita* hitzaren *eita* aldaera, Burgosen ere dokumentaturik dagoena.

Koldo Mitxelena aspaldi adierazi zuen (1953, *Apellidos vascos*, 37. or.) *eita* bereziki Gaztelako agerietan ageri dela, eta bertan gerora *eita > echa* bilakaera izan zuela.

Aragoieran bizirik gorde diren euskal hitzak bereiztean, hitz multzo bat aurkitu dugu ezin dena ziur baieztatu euskarazko hitzek osatua ote den. Oso daitekeena da hitz horiek aragoierak berezkoak izatea latinetik izan zuen bilakaeran eta, halaber, euskaraz hitz berberak inguruko erromantzeetatik mailegatu izana. Hona hemen batzuk: arag. *beire* eusk. *beira*, arag. *candela* eusk. *kandela*, arag. *esquila* eusk. *ezkila*, arag. *lata* eusk. *lata* (teilatuko ohola), arag. *perexil* eusk. *perrexil*, arag. *tastá* eusk. *dastatu*, arag. *tella* eusk. *teila*, etabar.

Hitz horiek guztiak, bi hizkuntzotan forma bera dutelako eta euskal tradizioan oso erroturik daudelako, euskarazkotzat jo ditugu eta gure hiztegian ageri dira. Batzuetan ohar bidez gogorarazi dugu halaber hutsa izan daitekeela hitz horietako bat bi hizkuntzetan egotea. Xehetasun gehiago nahi dituen irakurleak Franchó Nagore jaunaren artikulura jo dezake (Ikus hitzaurre honetan 5. puntuko 5. iturria).

4. Hiztegia egiteko erabakiak. Grafia eguneratua

Oskako aragoieran gordetako euskal hitzak eta erdal grafiaz idatzitako toponimoak hiztegi honetara ekartzeko, haien grafia eguneratu behar izan dugu eta, horretarako, honela jokatu dugu: c (a, o, u) > k, c (e, i) > z, qu > k, ch > tx, gu (e, i) > g (e, i), g (e, i) > j (e, i), mb > nb eta mp > np.

4. 1. Parentesien erabilera

Bilduma honetako gainerako hiztegietan bezala, bitariko parentesiak erabili dira hemen: () eta []. Ohiko parentesien artean ematen dena — () artean, alegia— ondoko hauxe da. Hitz bakoitzaren iturriak: (2, 4, 5, 8). Hitzak zein gaitakoak diren: (*anat.*), (*nek.*). Eta euskalkiko hitz bakoitzari euskara batuan emandako ordainean ongi datozkeen argibideak: **abar** (3, 4, 6) : abar (adartxo). Sarreretan, hitza osatu beharra izan denean: *bulk(ada)* bultzada, *kukut(atu)* ezkutaketan ibili.

Adibideetan *claudator* delako parentesia ageri denean — [], alegia—, testuetako zerbait ukitu edo ustez zuzendu egin dugula esan nahi du: *ezp[e]ldoia*, *auntzate[a]*, etabar.

4. 2. Hiztegi honen erabilera

Erabilera errazeko hiztegia da hau. Bi kontsulta modu ditu:

1) Lehenengo aldeko hitzak edo sarrerak Oskako euskaraz daude, beren ordaina euskara batuan dutela. Aurkitu direnean, adibideak jarri zaizkie hitzei.

2) Zerbait Oskako euskaraz nola esaten den jakiteko, berriz, hiztegiaren bigarren

zatira joko dugu, hor euskara batuaren bidez kontsulta baitaiteke. Zati horretan hitza eta euskalkiko haren ordaina besterik ez dugu aurkituko, gaia (*anat., nek., zoo.*) ondoan ageri dela, jarrita dagoenean. Informazio osatuena eskuratu ahal izateko, komenigarria da kontsulta beti lehen aldean bukatzea, hitzen adibideak lehen zatian ageri direlako.

Bestalde, hiztegiko oharretan (OH.), adibidez, «Ikus Andolz 111» irakurtzen badugu, horrek esan nahi du 5. puntuko bibliografiako Andolzen idazlanaren orrialde horretan informazio gehiago aurkituko dugula kontsultagai dugun sarreraz.

5. Hiztegiaren iturrien bibliografia

Jarraian, hiztegia egiteko erabili diren testuen berri emango dugu. Ikus daitekeen bezala, bost dira. Denera 315 hitz edo sarrera bideratu dizkigute iturriok.

1) Juan Karlos LOPEZ-MUGARTZA

— 2008, *Erronkari eta Ansoko toponimiaz*, Euskaltzaindia-Nafarroako Gobernua, Iruñea.

Iturri honek 104 hitzen lekukotasuna eman du. Horietatik 69 berak bakarrik dakartza.

2) Rafael ANDOLZ

— 1993 [2004], *Diccionario aragonés*, Mira argitaletxea, Zaragoza.

Iturri honek 125 hitzen lekukotasuna eman du. Horietatik 60 berak bakarrik dakartza.

3) Gartzzen LACASTA

— 1994, *El euskera en el Alto Aragón*. Non: *Cuadernos de Sección. Hizkuntza eta Literatura*, 12, 141-278. or., Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Iturri honek 79 hitzen lekukotasuna eman du. Horietatik 21 berak bakarrik dakartza.

4) HAINBAT EGILE

Gerónimo BORAO

— 1859, *Diccionario de voces aragonesas*, Ariño argitaletxea, Zaragoza.

Manuel ALVAR

— 1949, *Toponimia del alto valle del río Aragón*, Instituto de Estudios Pirenaicos, Zaragoza

Pilar MENDIARA, Alicia PEREZ, Josefina MENDIARA, Montse CASTAN

— 2003, *Diccionario del dialecto Ansotano*, Ansoko Udala, Ansó

Abel PEREZ

—2010, *Bordaleros, Axadiellos y Esgarrabarzas. Tradición agrícola en Fago*, Fagoko Udala, Fago.

Iturri honek 107 hitzen lekukotasuna eman du. Horietatik 42 berak bakarrik dakartza.

5) Francho NAGORE

— 2004, *Agunas relaciones entre la lengua aragonesa y la lengua vasca*, Non: *Vascuence y Romance: Ebro-Garona, un espacio de comunicación*, 279-306. or., Nafarroako Gobernua, Iruñea.

Iturri honek 59 hitzen lekukotasuna eman du. Horietatik 21 berak bakarrik dakartza.

6. Toponimia, arlo irristakorra

Bosgarren puntuan argi ikusten denez, Oskako hiztegia toponimian oinarritua da, oso neurri handian. Nafarroa Garaiko hiztegiak egin ditugunean ere adierazi izan dugu toponimia ez dela, beharbada, iturririk egokiena hiztegi gintzarako, zalantzazko leku izenak ez direlako gutxi izaten; haietako asko esanahi ilunekoak izaten dira, ulergaitzak. Arlo horretan lanean dabilzan egileen artean, gainera, kontraesanak ikusi ditugu zenbaitetan.

Toponimia gabe, ordea, hiztegi hau egiterik ez zen izango, Oskako euskararen hitz jario handia iturri horretatik dator eta. Interpretazio zailekoak iruditu zaizkigun leku izenak EZ ditugu erabili, eta gardenak iruditu zaizkigunei utzi diegu lekua, adituek —edo adituren batek— esanahia argitu dietenekin batera. Beharrezko iritzi diogunean, informazio gehiago nahi duen irakurlea egileen jatorrizko lanetara bidali dugu, OH. (oharra) laburduraren bidez.

Bestetik, toponimian jasotako *ago*, *bizkar*, *bular*, *gibel*, *sabel* eta antzeko hitzak, toponimian berez ezaugarri geografikoei loturik daudenak, jatorriz anatomiar zegozkiola iritzi diogu. Horregatik, hitz multzo hori *geografia* gaiaz markatzeaz gain, *anatomia* gaiaz ere markatu dugu. Eta toponimian «txikia» esan nahi duen *guti* hitzari, «gutxi» hitzaren parekidetasuna ere eman diogu.

Jakitun gara toponimiaren arloan gu ere irristatu egingo ginela. Barka bitza irakurleak gure akatsak. Hau, ordea, ez da toponimia argitzeko idazlana, toponimian aurkitu diren hitzak irakurlearen eskuetan jartzeko hiztegia baizik.

Irakurleak hiztegi honetako hitz bat toponimiatik hartuta dagoen ala ez jakin nahi izanez gero, 5. puntuko iturrien bibliografiara jo besterik ez du, hitz sarreretan ageri diren iturri-zenbakien bidez.

7. Diakronia gure hiztegian

Bestetik, gogoan izan behar da duela ehunka urte desagertatuko hizkuntza baten edo hizkuntza aldaera baten lekukotasunak ez direla beti garai berekoak izaten, baizik eta mende desberdinetan jasota geratu diren hitzak edo esaldiak izan ohi direla.

Horrela, Zaraitzuko euskararen hiztegia, adibidez, gorde diren XIX. eta XX. mendeetako testu idatzirik gabe eta XX. eta XXI. mendeetako azken hiztunen ekarpena gabe egin balitz, hiztegi horren itxura orain duenaren oso desberdina izango zen, iturri nagusia mende horien aurreko toponimia izango zelako, hau da, euskalki horretan ia sinkoparik ez zegoen garaikoa (Zaraitzueraren ezaugarri nabarmenetako bat sinkopak dira).

Zuhurtziak diosku ez dugula pentsatu behar Oskako euskara galdu ez balitz, hiztegi honetan ageri dena bezalakoxea izango zenik. Ziur aski, Zaraitzun bezala, XV. mendeko Oskako euskara, eta XXI. mendekoa aski desberdinak izango ziren.

Aldiz, lasai baieztatu daitezke hiztegi honetan dauden Oskako euskararen lekukotasunak garai jakinetako argazki zaharrak direla, zuri-beltzezko argazki hautsezatuak. Baina hango argazkiak.

Irakurleak iturri bakoitza zein garaitakoa den jakin nahi izanez gero, 5. puntuko iturrien bibliografiara jo besterik ez du, hitz sarreretan ageri diren iturri-zenbakien bidez.

8. Esker onez

Oskako hiztegia nire anaia Jesusmari Arana Luzuriagaren laguntzarekin argitaratu da. Anes Arruti lan informatikoan jardun da berriz ere laguntzaile. Koldo Colomo adiskideak prestutasun handiz bilatu eta bideratu ditu lanerako behar izan ditugun material gehienak.

Esker mila guztiei, zintzoki.

Aitor Arana

Azpeitian, 2020ko udaberrian

Ikurrak eta laburdurak

()	1. Sarreretan, hitza osatzeko erabili da. 2. Itzulpenetan, gehigarriak eta argibideak.
[]	Adibideetan, zuzendu edo osatu nahian erantsi dena.
(?)	Ziurtasunik gabekoa.
{Z}	Zalantzazkoa.
;	Hitz batek ondokoarekiko antz handia duenean, baina ez esanahi berbera.
:	Adibide amaiera eta batuaz emandako ordainaren hasiera.
/	Adibide hasiera.
>	1. Adibidea jarraian dator. 2. Hitz bat aurrekoaren eratorria da.
=	Baliokideak dira, esanahi bera dute.

adj.	Adjektiboa
adb.	Adberbioa
adib.	Adibidea
alb.	Albaitaritza
anat.	Anatomia
astr.	Astronomia
bot.	Botanika
ekon.	Ekonomia
erai.	Eraikuntza, eraikinak
erl.	Erljioa
geog.	Geografia
gram.	Gramatika
haur.	Haur-hizkera
heg.	Hegaztiak
hist.	Historia
hizk.	Hizkuntzalaritza
its.	Itsas kontuak
jos.	Jostailuak
kim.	Kimika
kir.	Kirola
lag.	Lagunartekoa
med.	Medikuntza
met.	Meteorologia
meta.	Metalak
mil.	Milizia
min.	Mineralogia
mit.	Mitologia
mus.	Musika

nek.	Nekazaritza
OH.	Oharra.
oih.	Oihalgintza
psk.	Psikologia
suk.	Sukaldaritza
tek.	Teknika
zoo.	Zoologia
zuz.	Zuzenbidea